
	<p><b>Erosketak, ditzosozko</b></p> <p><b>erosketak</b></p>		<p><b>1E24</b></p> <p>Irakaslearen gida</p>
-----------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------

**Audioaren erreferentzia:** Bagoaz A1 e24

**Maila:** A1

**Helburua:** Informazioa osatzeko galderak egin eta erantzutea, eta besteei egingo denaren berri ematea.

**Funtzioa:** erosketen zerrenda osatzeko helburuz, solaskideari zer daukan eta zer erantzun adieraztea,

**Azken ekintza:** zein errezeta aukeratu duten eta zer erosiko duten denen aurrean kontatu.

**Adierazpide linguistikoak:**

- Gramatika: aditza geroaldian, -(r)ik partitiboa. BEHAR partikula, formarik sinpleenean. Ohiturazko aditz-aspektua. Agintera.
- Lexikoa: hiztegi orokorra: elikagaiak... / Zenbait aditz: prestatu, erosketak egin, sukaldean egin, osatu,....

## 1- ENTZUN AURRETIK

### 1.1 Hauek dira nire etxeko ohiturak

Gaian sartzeko, binaka eguneroko erosketak egiteko dituzten ohiturez hitz egingo dute, eta batak besteari esandakoa apuntatzen joango dira. Horretarako, zenbait galderari erantzun eta beraien etxean zein produktu diren beharrezkoak eta zein ez adieraziko dute, zenbait produkturen zerrenda aurrean dutela. Honela, gaian sartzeaz gain, elikagaien hiztegia lantzen hasiko dira. Azkenik, binaka elkarri kontatu diotena taldearen aurrean adieraziko dute. Horretarako adibide bat emango diegu.

### 2.1 Ditzosozko erosketak!

Atal honetan, audioko mezu orokorra ulertzen laguntzetik hasiko gara, eta horretarako galdera baten erantzun zuzena aukeratzeko eskatuko diogu ikasleari. Hemen erantzun zuzena:

Zer gertatzen da erosketekin?

- Alexek erosketak egin behar ditu
- *Aste osoan ez dituzte erosketak egin*
- Amaiak egunero egin nahi ditu.

## 2.2 Zerrenda egiten

Berrito audio osoa entzun ondoren, ulermen xehea lantzeko, egiak eta gezurrak identifikatuko dituzte. Hemen erantzun zuzenak:

- Josuri eta Amaiari beti erosketak egitea tokatzen zaie. **E**
- Alexek eta Amaiak mueslia hartzen dute. **E**
- Txokolatea Alexen kapritxoa da, eta ez dute erosiko. **G**
- Komuneko papera ere falta da. **E**
- Olioia, ozpina eta gatza ere falta zaie. **G**
- Amaiari ez zaio gustatzen erosketak Josurekin egitea. **G**

## 3. ENTZUN ONDOREN

### 3.1 Jarri arreta hizkuntzan

Entzun duten elkarrizketan agertu diren zenbait egitura eta esapideri erreparatzeko eskatuko diegu lehendabizi (ikus taula urdina). Ondoren, horiek praktikan jartzeko, binaka, beraien etxean falta diren produktuen zerrenda prestatzeko eskatu eta elkarrizketa osatu behar dute, ereduaren antzekoa.

### 3.2 Gaur afari berezia!

Afari berezi baterako errezeta aukeratzeko eskatu eta ondoren, binaka, erabaki dezatela zein osagai behar dituzten hori egiteko. Aurrez, osagaien zerrenda emango diegu lagungarri gisa, baina beraiek beste osagaien bat aukeratu ahalko dute. Etxean zer duten eta zer ez ere aurrez idazteko eskatu.

Hori egin ondoren, binaka elkarrizketa osatuko dute errezeta egiteko behar dituzten produktuekin erosketen zerrenda osatzeko. Elkarrizketaren adibide bat emango diegu lagungarri gisa.

Azkenik, talde handian, zein errezeta egingo duten, eta hori egiteko zein osagai dituzten eta zein falta dituzten kontatuko dute, horrela, modu askeago batean lehen atera diren hizkuntza-egiturak praktikan jarri ahalko dituzte. Txuleta modura, hemen ere adibidea emango diegu.

## MATERIAL OSAGARRIA

Erosketen gaia aitzakia hartuta lanketa gehiago egiteko honako material osagarria erabil dezakezu:

- **Erosketak egiten** (A2 maila) Ikasbileko erreferentzia: [926679](#). Bertan erosketen inguruko hiztegia, zenbait hizkuntza-egitura eta abar lantzeko ariketak proposatzen dira.
- **Gabonetako erosketak** (A1 maila) Ikasbil: [488936](#). Honakoak lantzen dira, besteak beste: hiztegia: dendak, produktuen izenak, deklinabidea....

## AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Amaia, aste osoa daramagu etxeko erosketak egin gabe.

AMAIA.— Bai, norbaitek egin behar du, Josu.

JOSU.— Ados, baina zuri eta niri tokatzen zaigu beti. Eta June, Oier eta Alex, zer?

AMAIA.— Beste gauza batzuk egiten dituzte. Adibidez, gaur goizean Alexek eskailerak garbitu ditu.

JOSU.— Ondo da.

## ETENA

JOSU.- Tira, zerrenda egingo dugu. Ea ba, zer falta zaigu? Begiratu gaileten armairuan, mesedez.

AMAIA.— Gailetak bai, tostadak ere bai... A, pentsua ere falta da, apuntatu, mesedez!

AMAIA.— Nola esaten zaio... Ai, mueslia.

JOSU.— A! Baina nork hartzen du mueslia?

AMAIA.— Alexek eta nik bai.

JOSU.— Ados, ados. Besterik?

AMAIA.— Txokolate pixka bat nahi duzu, Josutxo maitea?

JOSU.— Bueno, ados. Baina ez esan inori, diru gutxi daukagu eta.

AMAIA.— Lasai, gure sekretua izango da.

JOSU.— Droga-trafikoa ematen du. Ez da hain larria izango.

AMAIA.— Txokolatea, gure Josu maiteak bere kapritxoa egiteko.

JOSU.— Tira, tira, pelikula gutxiago. Olioak eta, begiratuko dituzu, mesedez?

AMAIA.— Olioak, ozpina eta gatzak badaude. Arrautzarik?

JOSU.— Itxoin, oraintxe. Hiru bakarrik daude.

AMAIA.— Ba dozena bat apuntatu, bai?

JOSU.—Bai. Ogia, urdaiazpikoa, gazta...

AMAIA.— Bai, bai, baina kontuz, bestela 100 € gastatuko ditugu!

JOSU.— A, eta komuneko papera, ezta?

AMAIA.— Bai, ia-ia bukatu da.

JOSU.— Ba, horrekin, kito.

ETENA

AMAIA.— Noiz joango gara?

JOSU.— Zazpiak aldera. Aizu, Amaia, zuri asko gustatzen zaizu erosketak nirekin egitea, ezta?

AMAIA.— Zergatik diozu hori?

JOSU.— Bueno, aurrekoan plazara gu biok joan ginen, harategira eta okindegira ere bai, pilak erostera ere bai... Zu, ni gabe, aspertu egiten zara.

AMAIA.— Bai, zera! Baboa! Oso gustura joaten naiz zurekin, bai. Baina arrazoia oso simplea da.

JOSU.— Zein? Maitasuna? Pasioa?

AMAIA.— Ezta pentsatu ere! Zuk ekartzen dituzu beti erosketak!

JOSU.— Kaka! Merezi dut, bai!